**AKTA 6** | **ACTA 6**
**2023KO URRIAK 31** | **31 DE OCTUBRE DE 2023**

---

**ORGANOA:** Udalbatzar Txit Garaia
**ÓRGANO:** Excmo. Ayuntamiento Pleno

**BATZARRALDIA:** Ohiz kanpokoa
**SESIÓN:** Extraordinaria

**TOKIA:** Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
**LUGAR:** Salón de Plenos de la Casa Consistorial

**EGUNA:** 2023ko urriak 31
**FECHA:** 31 de octubre de 2023

**HASIERA ORDUA:** 10:00
**HORA DE COMIENZO**: 10:00 h

**LEHENDAKARIA:** Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea.
**PRESIDE:** Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

**ETORRITAKOAK:** Alkateorde jaun-andreak:
**ASISTEN:** Los/las señores/as Tenientes de Alcalde:

Doña Nekane Arzallus Iturriza andrea
Doña M.ª Soledad Garmendia Beloqui andrea
Doña Ane Oyarbide Ochoa andrea
Don Jon Insausti Maisterrena jauna

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores/as concejales/as:

Doña Mª Jesús Idoeta Madariaga andrea
Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna
Doña Olatz Yarza Garagorri andrea
Don Martin Ibabe Eceiza jauna
Don Kerman Orbegozo Uribe jauna
Doña Ana López Loiarte andrea
Don Juan Karlos Izagirre Hortelano jauna
Doña Olaia Duarte López andrea
Don Jabier Vitoria Roma jauna
Doña Garbiñe Alkiza López de Samaniego andrea *(10:25ean iritsi da / se incorpora a las 10:25 h)*
Don Rikardo Burutaran Ferré jauna
Don Markel Ormazabal Gaztañaga jauna

Doña Itziar Iturri Arrázola andrea
Doña Izar Hernando Ibero andrea
Don Iñaki Gabarain Gaztelumendi jauna
Don Carlos García Hernández jauna
Doña Cristina Lagé Manich andrea
Don Borja Corominas Fisas jauna
Don Jorge Mota Iglesias jauna *(11:20an iritsi da / se incorpora a las 11:20 h)*
Doña Vanessa Vélez de Pablos andrea
Don Victor José Lasa Briz jauna
Doña Arantza González García andrea

**IDAZKARIA:** Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkariordea.

**SECRETARIO:** Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Secretario General en funciones del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

---------------

| LABURPENA | Zk/ Nº | SUMARIO | Pág Orr. |
|---|---|---|---|
| Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena. | | Declaración anual de política general. | 2 |

---------------

**DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN EZOHIKO OSOKO BILKURA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.**

**SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.**

---------------

**Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena.**

**Declaración anual de política general.**

Alkate-Udalburuak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el Sr. Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**ATSEDENALDIA**

**10:50ean, 20 minutuko atsedenaldia egin da eta 11:10ean berriro hasi da.**

**RECESO**

**Siendo las 10:50 h, se suspende la sesión por 20 minutos y se reanuda la misma, siendo las 11:10 h.**

---------------

Eztabaida hasita, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Victor Jose Lasa Briz jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/a señores/a D. Juan Karlos Izagirre Hortelano, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Borja Corominas Fisas, D. Victor José Lasa Briz, D. Jon Insausti Maisterrena y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**ATSEDENALDIA**

**13:55ean eten egin da saioaren bigarren zatia, eta 17:00etan berriro hasi da.**

**RECESO**

**Siendo las 13:55 h se suspende la segunda parte de la sesión y se reanuda la misma, siendo las 17:00 h.**

---------------

**TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN INGURUKO EZTABAIDA.**

**DEBATE SOBRE LAS PROPUESTAS PRESENTADAS POR LOS PARTIDOS.**

Eztabaida hasita, Victor Jose Lasa Briz jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/as señores/as D. Victor José Lasa Briz, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Ane Oyarbide Ochoa, D. Juan Karlos Izagirre Hortelano y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**1. Ebazpen-proposamena, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, etxebizitzari buruzkoa.**

“ELKARREKIN DONOSTIA taldeko bozeramaile Victor Lasa Brizek, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 55. artikuluaren babesean, HIRIKO ETXEBIZITZARI BURUZKO EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkeztu du, POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENAren inguruko ezohiko Udalbatzan aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Etxebizitza bat lortzea da donostiarrek aspalditik duten arazo nagusietako bat da. Hiri garestienetako rankinetako lehen postuetan dago Donostia, bai etxebizitzak alokatzeko, bai etxebizitzak erosteko. Etxebizitzak eskuratzeko arazo larri horren ondorioz, Europa mailan gazteen emantzipazio-adin berantiarretako bat dauka Donostiak.

Etxebizitzarako eskubideak beste eskubide batzuk baldintzatzen ditu, hala nola lana izatea, sufragio-eskubidea baliatzea, prestazio eta zerbitzu publikoak eskuratzea,

**1. Propuesta de resolución, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre vivienda.**

“Victor Lasa Briz, Portavoz del grupo ELKARREKIN DONOSTIA, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, relativa a LA VIVIENDA EN LA CIUDAD.

JUSTIFICACIÓN

El acceso a una vivienda es uno de los principales problemas que tienen los y las donostiarras desde hace tiempo. Donostia se sitúa en los primeros puestos de los rankings de las ciudades más caras tanto para alquiler como para compra. Este grave problema de acceso a una vivienda ha derivado en que también tenemos una de las tasas de emancipación juvenil más altas de Europa.

El derecho a la vivienda condiciona el ejercicio de otros derechos como pueden ser tener un empleo, ejercer el derecho de sufragio, acceder a las prestaciones y a los servicios públicos,

seme-alabak eskolatzea, kultura eta ingurumen egokia izatea, bizipenak senideekin eta lagunekin partekatzea, Euskadiko Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak adierazten duen bezala. Lege horrek etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzen du, eta etxebizitzaren helburu soziala ezartzen du.

escolarizar a hijos e hijas, gozar de la cultura y de un medio ambiente adecuado, compartir las vivencias con familiares y amigos, tal y como pone de manifiesto la Ley 3/2015, de 18 de junio, de vivienda de Euskadi. Esta Ley reconoce el derecho subjetivo a una vivienda y establece el fin social de la misma.

Hori da, halaber, maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen xedea, etxebizitzarako eskubideari dagokionez: etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea eta hura arrazoizko baldintzetan gozatzeko eskubidea aitortzen ditu.

Ese es el objeto también de la Ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda: a acceder a una vivienda digna y adecuada y al disfrute de la misma en condiciones asequibles.

Gogoratu behar da Euskadiko Etxebizitza Legearen laugarren azken xedapenaren arabera, legea argitaratu eta hurrengo bost urteetan, hau da, 2020an, etxebizitzaren arloko baliabide publikoen esleipena % 100ean alokairura bideratuko dela.

Cabe recordar en que según la Disposición final cuarta de Ley de vivienda de Euskadi de 2015, en los cinco años siguientes a la fecha de publicación de la ley, es decir 2020, la asignación de recursos públicos en materia de vivienda se destinará al alquiler en un 100 % .

Etxebizitza bat lortzeko zailtasunak edo oinarrizko eskubide hori eskuratu ahal izateak dakarren gehiegizko kostua gizarte-bazterketaren arrazoi nagusia dira dagoeneko. FOESSA fundazioaren azken txostenak aitortzen du gora egin dutela bizitegi-bazterketako egoerek eta etxebizitza-gastu handiegiak dituzten etxebizitzen kopuruak. Era berean, AROPE txostenak adierazten du Euskadin biztanleriaren % 6,6k bere errenta erabilgarriaren % 40tik gorako etxebizitza-gastuak dituela, baina kalteberatasun- eta pobrezia-egoeran daudenen artean zifra seikoiztu egiten da, eta % 42,6ra iristen da.

Las dificultades para acceder a una vivienda o el excesivo coste que supone el poder acceder a este derecho básico es ya la principal causa de exclusión social. El último informe FOESSA reconoce que se ha producido un incremento de las situaciones de exclusión residencial así como del número de hogares con gastos excesivos en vivienda. Asimismo el informe AROPE señala que en Euskadi el 6,6 % de la población tiene gastos de vivienda superiores al 40 % de su renta disponible, sin embargo, entre las personas en situación de vulnerabilidad y pobreza la cifra se sextuplica y alcanza al 42,6 %.

Estatuko legeak eta EAEko legeak mekanismo nahikoak dituzte hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko. Hirian, gaur egun, 5522 etxebizitza daude hutsik, eta horiek mobilizatu eta alokairuko programa

Tanto la ley estatal como la ley vasca cuentan con mecanismos suficientes para conseguir movilizar la vivienda vacía. La ciudad cuenta en la actualidad con 5522 viviendas vacías que podrían y deberían ser movilizadas e

publikoetan txertatu beharko lirateke. Era berean, alokairuen erregulazioaren bidez, espekulazio-merkatuari lotutako prezio neurrigabeak geldiarazi beharko lirateke. Etxebizitza eskubide bat da, eta administrazio publikoak hala dela bermatu behar du.

Une honetan, etorkizuneko HAPOn ari da lanean Udala. Plan horrek hiriaren eta bertako biztanleen etorkizuna markatuko du. Planaren aurrerapenak berak egiten duen diagnostikoak agerian uzten du «etxebizitzaren ohiko xedean eta erabileran disfuntzio bat dagoela; izan ere, ez dirudi helburu nagusia hiriaren eta bertako biztanleen eskari endogenoari erantzutea denik». Beraz, beharrezkoa da norabidea aldatzea, donostiarren benetako premiak asetzeko neurriak planteatzea.

Horiek hala direla, hau da gure

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio gaindi ditzala etxebizitza babestuen erreserbaren legezko gutxienekoak, etorkizuneko HAPOren oinarrietan hiri-lurzoru finkatuan % 75 babes publikoko etxebizitzetarako izan dadin, eta hori guztia alokairuan, Euskadiko Etxebizitzaren Legeak ezartzen duen bezala, hirian alokairuko etxebizitza babestuen kopurua handitzeko helburuarekin.

2. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio erabil ditzala Euskadiko Etxebizitzaren 3/2015 Legeak eta Etxebizitzarako Eskubidearen maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak bi legeetan ezarritako etxebizitzaren helburu soziala betetzeko aukera ematen duten aukera guztiak, eta, zehazki, beharrezko urratsak eman ditzala hirian

incorporadas a los programas públicos de alquiler. Asimismo, existen mecanismos como la regulación de los alquileres que deberían poner freno a los precios desorbitados ligados al mercado especulativo. La vivienda es un derecho y desde la administración pública se debe garantizar que así sea.

En este momento, el ayuntamiento está trabajando en el futuro PGOU, un Plan que va a marcar el futuro de la ciudad y sus habitantes. El diagnóstico que hace el propio avance del Plan revela que “existe una disfunción en el destino y utilización ordinaria de la vivienda, pues su fin principal no parece ya ser el de atender la demanda endógena de la propia ciudad y sus residentes”. Por lo tanto, es más que necesario un cambio de rumbo, plantear medidas que puedan hacer frente a las necesidades reales de la ciudadanía donostiarra.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a superar los mínimos legales de reserva de vivienda protegida, de tal manera que en las bases del futuro PGOU se destine en suelo urbano consolidado un 75% a vivienda de protección pública siendo toda ella en alquiler tal y como establece la Ley de Vivienda de Euskadi, con el objetivo de aumentar el número de viviendas protegidas en alquiler en la ciudad.

2. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a utilizar todas las posibilidades que tanto la Ley 3/2015, de vivienda de Euskadi, como la ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda, permitan poner en marcha con el objetivo de cumplir con el fin social de la vivienda establecido en ambas leyes y, en concreto, dar los pasos necesarios para

etxebizitza hutsik egon ez dadin.

Donostian, 2023ko urriaren 31n

Victor Lasa,
Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramailea".

impedir que haya viviendas vacías en la ciudad.

Donostia, a 31 de octubre de 2023

Dr Victor Lasa
Portavoz de Elkarrekin Donostia"

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**1. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 8 – EH BILDU.**

**1. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**2. Ebazpen-proposamena, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Donostian Donut ekonomiaren esparrua ezartzeko eta garatzeko egin daitekeen azterlanari buruzkoa**

“ELKARREKIN DONOSTIA taldearen bozeramaile Victor Lasa Brizek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta DONOSTIAN DONUT-AREN EKONOMIA EZARTZEKO ETA GARATZEKO GAITASUNA IZATEA AZTERTZEARI BURUZKO EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkeztu du, POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENAren gaineko Osoko Bilkuran aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiarako etorkizuneko proiektuak NBEren[1] Garapen Jasangarrirako helburuen mende egon behar du. Esparru hori aplikatzeko modurik onena Donut-aren Ekonomia da gero eta ekonomialari espezializatu gehiagorentzat. Oxfordeko Unibertsitateko Ekonomiako katedradun Kate Raworthek sortutako esparru ekonomikoaz ari gara. Oinarri humanista duen eredu ekonomiko berri bat da, mundu osoko abangoardiako hiri asko –hala nola, Brusela edo Amsterdam– aberastasunaren eta hazkunde ekonomikoaren kontzeptuei beste esanahi bat emateko erabiltzen ari diren tresna.

Paradigma-aldaketa horrek proposatzen du Barne Produktu Gordinaren (BPG) mugarik gabeko hazkundean oinarritutako eredu ekonomikoa utzi eta oparotasun ekonomikoa gizarte eta natura ongizatearen mende dagoela kontzientziatzea. Hori lortzeko, gobernantza-sistemak eraldatzea proposatzen du, birsortzaileak eta

**2. Propuesta de resolución, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el estudio para la potencial implementación y desarrollo del marco de la economía del Donut en Donostia.**

“Dr Victor Lasa, portavoz del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, relativa a EL ESTUDIO PARA LA POTENCIAL IMPLEMENTACIÓN Y DESARROLLO DEL MARCO DE LA ECONOMÍA DEL DONUT EN DONOSTIA.

JUSTIFICACIÓN

El proyecto de futuro para Donostia tiene que estar regido por los objetivos de Desarrollo Sostenible de la ONU[1.] La mejor manera de aplicar ese marco es para cada vez más economistas especializados la Economía del Donut. Se trata del marco económico creado por la Catedrática de Economía de la Universidad de Oxford, Kate Raworth. Es un nuevo modelo económico de base humanista, una herramienta que muchas ciudades vanguardista de todo el mundo, como Bruselas o Amsterdam, están empezando a utilizar para resignificar los conceptos de riqueza y crecimiento económico.

Este cambio de paradigma propone virar de un modelo económico basado en el crecimiento sin límites del Producto Interior Bruto (PIB) para concienciar de que, al fin y al cabo, la prosperidad económica depende del bienestar social y natural. Para conseguirlo, propone transformar los sistemas de gobernanza para que sean regenerativos y distributivos en vez de

banatzaileak izan daitezen, ondasun komuna bilatzeko orduan mugatuak eta ez-eraginkorrak izan beharrean.

Donut-aren Ekonomiak eredu ekonomikoa aldatzea dakar, gizateriak aurre egin behar dion erronka handiari erantzuteko: aberastasuna sortzea, eskura ditugun baliabide natural mugatuak errespetatuz. Eredu ekonomizista klasikoaren osotasunarekiko zuzenketa bat, nolabait; onura ardatz duena, hiriaren arrakastaren azken neurri gisa. Hori da Munduko Bankuak[2] eta NBEk[3] ematen duten premisa, gomendatzen baitute Barne Produktu Gordin zaharkitua baino harago joatea erreferentzia ekonomikoko indize nagusia hartzeko orduan.

Iraunkortasunaren inguruan egiten den galdera interesgarria da nola ekoitzi gehiago baliabide natural gutxiago kontsumituta. Horrek prozesu eta produktuetan berritzea eskatzen du. Ekonomia zirkularra galdera hori praktikan jartzeko modu bat da[4].

Izen hori hartzen du bisualki bi erroskilarekin irudikatzen delako: erdigunean dagoena gizarte-oinarria da, aurrera egiteko erabiliko den lurzoru sozioekonomikoa, oinarrizko eskubideak biltzen dituena; eta kanpoko zirkulua ekonomiaren benetako iraunkortasuna bermatzeko gainditu behar ez litzatekeen sabai ekologikoa. Erdian donut-aren espazio iragazkorra izango litzateke, gizateriak modu integralean aurrera egin dezakeen espaziotzat hartuta hura, indize espezifikoagoak kontuan hartuta, eta planetaren mugak errespetatzea. Bi zirkunferentziak bat datoz Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH).

Kate Raworthek gainditu beharko ez liratekeen bederatzi ingurumen-atalase

finitos e ineficientes en la búsqueda del bien común.

La Economía del Dónut formula un cambio de modelo económico como respuesta al gran desafío al que se enfrenta la humanidad: crear riqueza respetando los limitados recursos naturales de los que disponemos. A su manera, se trata de una enmienda a la totalidad al modelo economicista clásico centrado en el beneficio como medida última del éxito de la ciudad. Esta es la premisa que mandan tanto el Banco Mundial[2] como la ONU[3], que recomiendan dar un paso más allá del obsoleto Producto Interior Bruto como índice principal de referencia económica.

En el entorno de la sostenibilidad la pregunta interesante que se formula es cómo producir más con menos consumo de recursos naturales. Esto requiere innovar en procesos y productos. La economía circular es una forma de poner en práctica esta pregunta[4].

Recibe este nombre porque visualmente se representa con dos rosquillas: la situada en el centro es la base social, el suelo socio-económico sobre el que prosperar, que recoge los derechos básicos fundamentales, y el círculo exterior es el techo ecológico que no debería sobrepasarse para garantizar la sostenibilidad real de la economía. En medio se situaría el espacio esponjoso del dónut, entendido como el espacio donde la humanidad puede progresar de manera integral, y considerando índices más específicos, mientras además se respetan los límites del planeta. Ambas circunferencias coinciden con los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de Naciones Unidas.

Kate Raworth identifica nueve umbrales ambientales que no deberían superarse para

identifikatu ditu, Lurraren osasuna arrisku handiagoan jarriko lukeen degradazio natural handiagoa saihesteko: klima-aldaketa, biodibertsitatea galtzea, ozeanoak azidotzea, lurzoruaren erabilera aldatzea, ur geza erauztea, nitrogeno eta fosforo karga, kutsadura kimikoa, airearen kutsadura eta ozono-geruza agortzea. Stockholmeko Erresilientzia Institutuak ikertu eta diseinatu ditu[5].

Bestalde, 12 dira gizateriak aurrera egin dezan funtsezko gizarte-helburuak, eta horietako asko oinarrizko giza eskubideak dira: elikadura-segurtasuna, diru-sarrerak, ura eta saneamendua, osasun-arreta, hezkuntza, energia, genero-berdintasuna, gizarte-berdintasuna, erresilientzia, parte-hartzea, enplegua, sareak eta etxebizitza eskuratzeko bidea izatea.

Hiriak Raworthek proposatutako aldaketa horren eragile izan daitezke, hiriaren benetako asmoari, hiriaren proiekzioa sare sozioekonomikoetan nola egiten den, nola gobernatzen den eta erabaki garrantzitsuenak nola hartzen dituen, eta ekonomiaren helburua zein den kontuan hartuta.

Brusela[6] [7], Amsterdam[8] edo Berlin[9] dira horren ezarpenaren aldeko apustua egin duten hiri batzuk, gizarte eta ingurumen-jasangarritasunerako bidea errazteko. Beste batzuk –hala nola, Melbourne edo Sydney– azterketak egiten hasi dira, zer-nola egokitu eta ezartzko modurik den begiratzeko[10]. Horien guztien abiapuntua partaidetza-prozesu zabalak hastea da, ereduaren helburu nagusiak identifikatzeko eta eredu hori hirietara egokitzeko; bideragarritasun-azterlan bat, Donut-aren Ekonomia pixkanaka egokitzeko hirietara.

evitar una mayor degradación natural que ponga aún más en riesgo la salud de la Tierra: cambio climático, la pérdida de biodiversidad, la acidificación de los océanos, los cambios en los usos del suelo, extracciones de agua dulce, carga de nitrógeno y fósforo, contaminación química, contaminación de aire y el agotamiento de la capa de ozono. Estos han sido investigados y diseñados por el Instituto de la Resiliencia de Estocolmo[5].

Por su parte, 12 son las metas sociales esenciales para que la humanidad prospere, muchas de las cuales son derechos humanos básicos: seguridad alimentaria, ingresos, agua y saneamiento, atención sanitaria, educación, energía, igualdad de género, equidad social, resiliencia, participación, empleo, redes y acceso a la vivienda.

Las ciudades pueden ejercer de agentes transformadores de este cambio propuesto por Raworth, atendiendo a cuestiones sobre el propósito real de la ciudad, cómo esta se proyecta en redes socio-económicas, cómo se gobierna y toma sus decisiones más importantes, y cuál es el propósito de su economía.

Bruselas[6] [7], Ámsterdam[8] o Berlin[9] son ejemplos de ciudades que han apostado por su implementación para allanar así el camino hacia la sostenibilidad social y medioambiental. Otras como Melbourne o Sydney han iniciado estudios para evaluar su adaptación y eventual implementación[9]. El punto de partida de todas ellas es iniciar procesos participativos amplios para identificar principales objetivos del modelo y su adaptación a sus ciudades; un estudio de viabilidad para la potencial adaptación progresiva de la Economía del Donut a sus ciudades.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Donostiako Udalari eskatzen dio Donut-aren ekonomiaren balizko ezarpena eta garapena ebaluatzeko azterlan bat has dezala.

Donostian, 2023ko urriaren 31n

Victor Lasa,
Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea".

Por todo lo antecedente, presentamos la siguiente:

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que inicie un estudio para evaluar la potencial implantación y desarrollo del marco de la economía del donut en Donostia.

Donostia, a 31de Octubre de 2023

Dr Victor Lasa
Portavoz de Elkarrekin Donostia".

1- https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/sustainable-development-goals/
2- https://www.worldbank.org/en/topic/natural-capital
3- https://www.un.org/en/desa/un-adopts-landmark-framework-integrate-natural-capital-economic-reporting
4- https://www.bbva.com/es/sostenibilidad/que-es-la-economia-del-donut-o-de-la-rosquilla/
5- https://www.stockholmresilience.org/research/planetary-boundaries.html
6- https://www.elsaltodiario.com/green-european-journal/barbara-trachte-economia-donut-bruselas
7- https://donut.brussels/
8- https://www.amsterdam.nl/en/policy/sustainability/circular-economy/
9- https://donutberlin.de/
10- https://doughnuteconomics.org/stories/93

**2. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 8 – EH BILDU.**

---------------

**3. Ebazpen-proposamena, PP taldeak aurkeztua, Ekialdeko barrutia garatzeko**

**3. Propuesta de resolución, presentada por el Grupo PP, para el desarrollo y**

**eta eraldatzeko.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta EKIALDEKO BARRUTIA GARATZEKO ETA ERALDATZEKO EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkeztu du, Politika Orokorreko Osoko Bilkuran aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Ekialdeko Barrutia erabat ahaztuta dago Donostian. Langabezia-indizeak, adibidez, hirian diren altuenak dira, per capita errenta baxuena, mantentze-zerbitzurik txarrena eta biztanleko inbertsio txikiena jasotzen duen barrutia da. Lau haizetara zabaltzen dute Ekialdeko Barrutiko emakume ekintzaileei eta saltokiei dirulaguntzak emtea. Dirulaguntza horiek, ordea, ez dute ezer ere konpontzen, eta egiten duten gauza bakarra Ekialdeko Barrutiaren eta hiriaren gainerako partearen arteko aldea betikotzea da.

Ekialdeko Barrutiak ez du dirulaguntzarik behar, ez du limosnarik behar. Ekialdeko Barrutiak haren aldeko apustu irmoa egitea behar du. Adibidez, Herrera eta Altza mugikortasun bertikaleko azpiegiturekin konektatuz edota Herrerako industria-lurzoruan enpresak erakartzeko gune bat sortuz, zerga-pizgarriak eta ezartzeko erraztasunak jarrita. Ekialdeko Barrutiak etxebizitza publikoak izateko proiektuak behar ditu, auzoko enpresetara langile kualifikatuak erakartzen dituzten gazteentzat. Auditz Akular parke teknologikoa eta etxebizitzak izango dituen gunea izatea behar du, enpresarien eta langileen beharrei erantzuteko modukoa.

Ekialdeko Barrutiak gaur egun duena baino

**transformación del Distrito Este.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en el Pleno de Política General la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para el DESARROLLO Y TRANSFORMACIÓN DEL DISTRITO ESTE.

JUSTIFICACIÓN

El Distrito Este es el gran olvidado de San Sebastián. Los índices de desempleo son los más altos de la ciudad, la renta per cápita la más baja, es el barrio con un peor mantenimiento, donde menos se invierte por habitante. Anunciar a bombo y platillo subvenciones a mujeres emprendedoras del Distrito Este, a comercios del Distrito Este. Subvenciones que no solucionan nada y que lo único que hacen es perpetuar la desigualdad del Distrito Este con el resto de la ciudad.

El Distrito Este no necesita subvenciones, no necesita limosnas. El Distrito Este necesita que se apueste decididamente por él, conectando con infraestructuras de movilidad vertical Herrera y Altza. Creando en el suelo industrial de Herrera un polo de atracción empresarial, con incentivos fiscales y facilidades de implantación. El Distrito Este necesita proyectos de vivienda pública para jóvenes que atraigan trabajadores cualificados a las empresas del barrio, necesita que se construya en Auditz Akular un mix de parque tecnológico y viviendas capaz de dar respuesta a las necesidades de empresario y trabajadores.

El Distrito Este necesita un futuro mucho más

askoz ere etorkizun dinamikoagoa behar du.

Hori dela eta, hauxe da gure EBAZPEN PROPOSAMENA:

1. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio Herrerako industria-ingurunea enpresa-zentro handi bihurtzeko apustua egin dezala, erabiltzen ez diren industria-guneak birgaitu eta behar den lekua izateko.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio hirigintza-biziberritze proiektu hori finantzatzeko bideak bila ditzala Europako erakundeetan zein Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako gobernuetan.

3. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio mugikortasun bertikaleko irtenbide bat planteatzeko, Herrera eta topoaren geltokia Altzako goiko aldeekin eta etorkizunean Auditz Akularren izango den hirigintza garapenarekin lotzeko.

4. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio Auditz Akularren hirigintza-garapenaren aldeko apustu irmoa egin eta hura ahalik eta azkarren errealitate izateko egin behar diren administrazio-izapideak egiten hasteko.

5. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio barne-auditoria bat egin dezala, Ekialdeko Barrutian inbertitutako baliabideak eta lortutako emaitzak aztertzeko.

Donostian, 2023ko urriaren 26an.

Borja Corominas Fisas,
Talde Popularraren bozeramailea”.

dinámico del que tiene en estos momentos.

Por todo lo expuesto, presentamos la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN.

1. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al equipo de gobierno a que apueste por transformar el entorno industrial de Herrera en un gran centro empresarial. Rehabilitando los espacios industriales en desuso para conseguir el espacio necesario.

2. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al equipo de gobierno a explorar vías de financiación para llevar a cabo este proyecto de regeneración urbana tanto en las instituciones europeas como en los gobiernos guipuzcoano, vasco y español.

3. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al equipo de gobierno a plantear una solución de movilidad vertical que permita conectar Herrera y la estación del topo con las partes altas de Altza y con futuro desarrollo urbanístico de Auditz Akular.

4. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al equipo de gobierno a apostar decididamente por el desarrollo urbanístico de Auditz Akular e iniciar los trámites administrativos para que sea una realidad en el menor plazo posible.

5. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al equipo de gobierno a hacer una auditoría interna que analice los recursos invertidos en el Distrito Este y los resultados conseguidos.

En San Sebastián, a 26 de octubre 2023

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Popular”.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**3. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**3. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**ABSTENTZIOAK: 0.**

**ABSTENCIONES: 0.**

**3. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA PROPUESTA N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**3. PROPOSAMENAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA PROPUESTA N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (8) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (8) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**4. Ebazpen-proposamena, PP Taldeak aurkeztuak, Mundaiz-Tabakalera-Atotxa ardatzean bizi-kalitatea eta segurtasuna hobetzeko talka-plan bat idazteko.**

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikuluaren babesean,

**4. Propuesta de resolución, presentada por el Grupo PP, para la redacción de un plan de choque para incrementar la calidad de vida y seguridad en el eje Mundaiz-Tabakalera-Atotxa.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para

MUNDAIZ-TABAKALERA-GELTOKIA-ATOTXA ARDATZEAN BIZI-KALITATEA ETA SEGURTASUNA AREAGOTZEKO TALKA-PLANA IDAZTEKO EBAZPEN PROPOSAMENA aurkezten du, Politika Orokorreko Udalbatzan jorratzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Mundaiz-Tabakalera-Geltokia-Atotxa ardatzak potentzial handia du, eta bizi-kalitateari eta segurtasunari dagokienez erronka handiei egin behar die aurre. Funtsezkoa da arazo horri aurre egitea ingurune seguru eta atsegina bermatzeko bai eremu horretan bizi diren guztientzat, bai eta egunero tren eta autobus geltokietara eta Tabakalerara joaten diren herritar guztientzat ere.

Azken urteotan, segurtasunik eza areagotu egin da gure hirian, eta ardatz hori, Mundaiz-Tabakalera-Geltokia-Atotxa, segurtasun-ezaren puntu bero gisa defini liteke. Geure burua datuetan babestea eta beste hiri batzuekin alderatzea ez dira baliagarriak arazoa konpontzeko. Segurtasunik eza existitzen da, eta halaxe antzematen dute donostiarrek. Ezin dugu onartu, ezer egin ez delako, segurtasunik eza areagotzeak Donostiako herritarren eta bisitarien bizi-kalitatea murriztea edo desagerraraztea.

Mundaiz-Tabakalera-Geltokia-Atotxa ardatzeko ostalariek, merkatariek eta auzotarrek diote eguna kalean edaten eta kontsumitzen igarotzen duten pertsona-taldeek larderia eta mehatxuak erabiltzen dituztela haien kontra.

Adinekoen artean beldurra dago, kalean lapurretan egingo dietelakoan. Droga-salerosketa ageri-agerian egiten da, halaxe

su tratamiento en el Pleno de Política General la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN PARA LA REDACCIÓN DE UN PLAN DE CHOQUE PARA INCREMENTAR LA CALIDAD DE VIDA Y SEGURIDAD EN EL EJE MUNDAIZ-TABAKALERA-ESTACIÓN-AT0TXA

JUSTIFICACIÓN

El eje Mundaiz-Tabakalera-Estación-Atotxa es un lugar con un inmenso potencial que se enfrenta a grandes desafíos en términos de calidad de vida y de seguridad. Es fundamental abordar esta problemática para garantizar un entorno seguro y agradable para todos los residentes de esta zona, así como para todos los ciudadanos que acuden a diario tanto a las estaciones de tren y autobús, como a Tabakalera.

En los últimos años la inseguridad ha ido en aumento en nuestra ciudad, y este eje Mundaiz-Tabakalera-Estación-Atotxa se podría definir como un punto caliente. Escudarse en los datos, compararnos con otras ciudades no sirve para atajar el problema. La inseguridad existe y así lo perciben los donostiarras. No podemos permitir que por falta de la inacción, San Sebastián se convierta en esas ciudades en las que el incremento de la inseguridad ha hecho que la calidad de vida de sus ciudadanos y visitantes haya disminuido o desaparecido.

Hosteleros, comerciantes y vecinos de este eje Mundaiz-Tabakalera-Estación-Atotxa hablan de robos, intimidación y amenazas por parte de grupos de personas que pasan el día en la calle bebiendo y consumiendo.

Hay miedo entre los más mayores por si son asaltados en la calle. El “trapicheo” existe a plena luz del día y así lo aseguran los vecinos y

diote bizilagunek eta autobus-geltokiko erabiltzaileek. Gazteek onartzen dute gauez etxera bakarrik itzultzeak beldurra ematen diela, eta haien gurasoek hori egiteko aukera izan dezatela nahi dute, iraganean Donostian egiten genuen bezala, gurasoak haien bila joan behar izan gabe, ez garraio-faltagatik, baizik eta zerbait gertatuko zaien beldurragatik.

los usuarios de la estación de autobuses. Los jóvenes reconocen que volver de noche a sus casas, solos, les da miedo y sus progenitores quieren que puedan hacerlo, como lo hacíamos antes en San Sebastián, sin tener que ir a buscarles, no por la falta de transporte, sino por miedo a que les pase algo.

Donostiako kultura garaikideko zentroa da Tabakalera eta bertako espazio asko, zoritxarrez, lo egiteko, mugikorrak kargatzeko, eguraldi txarretik babesteko eta Tabakalerako erabiltzaileei lapurtzeko leku bihurtu dira.

Muchos de los espacios de Tabakalera, el centro de cultura contemporáneo de San Sebastián, se han convertido tristemente en el lugares ocupados para dormir, cargar los móviles, refugiarse de las inclemencias atmosféricas, y también para robar a los usuarios de Tabakalera.

Horregatik, hau da Alderdi Popularra udal-taldeak aurkezten duen

Esta es la razón por la que el Grupo Municipal del Partido Popular presenta la siguiente:

EBAZPEN PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN:

1. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio udal-talde guztiekin adostu dezala talka-plan bat, Mundaiz-Tabakalera-Geltokia-Atotxa ardatzean bizi-kalitatea eta segurtasuna areagotzeko.

1. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al equipo de gobierno a que consensúe con todos los grupos municipales un plan de choque para incrementar la calidad de vida y la seguridad en el eje Mundaiz-Tabakalera-Estación-Atotxa.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio Mundaiz-Tabakalera-Geltokia-Atotxa ardatzean okupatuta dauden eraikin eta higiezin guztietatik bertan dauden pertsonak aterarazteko.

2. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al equipo de gobierno a que se desalojen todos los edificios e inmuebles okupados en el eje Mundaiz-Tabakalera-Estación-Atotxa.

3. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio Mundaiz-Tabakalera-Geltokia-Atotxa ardatzean oinez patruilatzen ari diren agenteen presentzia areagotzeko, eremu horretan bizikidetza eta segurtasuna bermatzeko.

3. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al equipo de gobierno a que incremente la presencia de agentes patrullando a pie de calle en el eje Mundaiz-Tabakalera-Estación-Atotxa para garantizar la convivencia y la seguridad en esta zona.

4. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari

4. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián

eskatzen dio beharrezko neurriak har ditzala Tabakalerako sarbidea kontrolatzeko eta instalazioak erabiltzen dituzten pertsonek kultura garaikideko zentroak ematen dituen zerbitzuen helburuak errespeta ditzaten.

5. Donostiako Udalak gobernu-taldeari eskatzen dio kalean janaria banatzea debekatzeko.

Donostia, 2023ko urriaren 26an.

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularreko bozeramailea".

insta al equipo de gobierno a que adopte las medidas necesarias para controlar el acceso a Tabakalera y para que las personas que usen sus instalaciones lo hagan acorde a la finalidad de los servicios que presta el centro de cultura contemporáneo.

5. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al equipo de gobierno a que se prohiba el reparto de comida en la calle.

En San Sebastián, a 26 de octubre 2023

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Popular".

**4. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**5. Ebazpen proposamena, Donostiako Sozialistask PSE-EE taldeak aurkeztua, etxebizitza politikari buruzkoa.**

"Donostiako Sozialistak PSE-EE taldearen bozeramaile Marisol Garmendia Beloquik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Donostiako etxebizitza politikari buruzko EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkeztu du, POLITIKA OROKORRAREN

**5. Propuesta de resolución, presentada por el Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, sobre la política de vivienda.**

"Dª. Marisol Garmendia Beloqui, Portavoz del Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE

URTEKO ADIERAZPENARI BURUZko Udalbatzan aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA:

Hasi berri dugun legegintzaldi honetan onartu beharko dugu etorkizuneko hiria eraikitzeko ildo nagusiak jarriko dituen HAPO berria. Baina, horrezaz gainera, nahitaez heldu behar diogu hirigintza berriaren erronkari ere. Horretarako, eraldatuta dauden eremuak eraldatu gabe daudenen aurretik jarri eta ingurumen-jasangarritasun irizpide berriak izan behar ditugu kontuan, energia-eraginkortasun irizpideak, hiri berdearenak eta mugikortasun jasangarriarenak, gune komun eta aisialdiak izatearekin batera. Hiria egiteko modu berri bat, azken finean.

Hirigintza berri horren barruan, funtsezko elementua da etxebizitza-politika, horrek emango digulako hiriaren etorkizunari aurrerabidea, gizarte-kohesioa eta iraunkortasuna bermatuta aurre egiteko modua.

Etxebizitza-politikek ez dute etxebizitza babestuak egin eta kito geratu behar; beste bizitegi-irtenbide batzuetan ere eragin behar dute. Hala, arrazoizko prezioko alokairua sustatu behar dute, zuzkidura-bizitokiak egin, etxebizitzak banantzeko bidea handitu, erabileraz aldatzeko modua eman, eta abar.

Badakigu gure hirian den problematikari irtenbidea ematea gauza konplexua dela, eta politika eta akordio ugari egin beharko direla; politika eta akordio askotarikoak izan beharko direla, erakunde artekoak, eta elkarren artean koordinatu eta segida-segidan abian jarri, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa betetzeko bidea izango bada.

RESOLUCIÓN, sobre la política de vivienda de San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN:

Esta nueva legislatura que iniciamos y en la que, además, se aprobará el nuevo PGOU que deberá marcar las líneas generales para construir la ciudad del futuro, se debe abordar necesariamente el reto del nuevo urbanismo, con nuevos criterios de sostenibilidad medioambiental, priorizando las zonas transformadas sobre las que no lo están, con criterios de eficiencia energética, de ciudad verde, con una movilidad sostenible, con espacios comunes y con zonas de esparcimiento. En definitiva, una nueva forma de hacer ciudad.

Dentro de ese nuevo urbanismo, la política de vivienda es un elemento fundamental que nos permitirá encarar el futuro de la ciudad con garantías de progreso, cohesión social, y sostenibilidad.

Las políticas de vivienda no deben quedarse en la ejecución de vivienda protegida, también deben incidir en otras soluciones habitacionales, fomentando el alquiler a precios asequibles, la ejecución de alojamientos dotacionales, la ampliación de la posibilidad de segregaciones, cambios de uso, etc.

Sabemos que la solución a la problemática que existe en nuestra ciudad es compleja y va a requerir de una serie de políticas y acuerdos diversos e interinstitucionales que, puestas en marcha de forma coordinada y continuada, permitan dar cumplimiento al derecho subjetivo de acceso a la vivienda.

Donostiako etxebizitza-politikak batez ere gure gazteei begiratu behar die, arrazoizko prezio batzuetako bizitoki-irtenbide batzuk izan ditzaten bizitza proiektu independente bati ekin ahal izateko; eta, gazteei ez eze, gure adinekoei ere begiratu behar die.

La política de vivienda de San Sebastián tiene que estar principalmente enfocada en nuestros jóvenes, soluciones habitacionales a precios asequibles para que puedan comenzar un proyecto de vida independiente, así como a nuestros mayores.

Donostiako Sozialisten ustez, XXI. mendean etxebizitza publikoaren gaineko politika eraginkorrei heltzeko, hiru ardatz nagusi izan behar dira kontuan derrigor:

Los Socialistas Donostiarras creemos que, para abordar en el siglo XXI políticas de vivienda pública efectivas, estas deben pivotar sobre tres ejes principales:

• Iraunkorrak izan behar dute, eraikuntza-garapena espazio publikoetara eta komunitate-ekipamenduetara bideratutako eremu zabalekin antolatuz, eta hirian dagoeneko artifizializatuta dauden eremuen garapenari lehentasuna emanez.

• Deben ser sostenibles, ordenando el desarrollo edificatorio con amplias zonas destinadas a espacios públicos y equipamientos comunitarios, y priorizando el desarrollo de zonas ya artificializadas en la ciudad.

• Etxebizitza-politika errealistak izan behar dute, etxebizitza publikoaren eskatzaile kopuru errealen araberakoak, hirigintza-garapen jasangarria planifikatu ahal izateko.

• Deben ser políticas de vivienda realistas acorde al número de solicitantes reales y demandantes de vivienda pública, para poder así planificar un desarrollo urbanístico sostenible.

• Etxebizitza-politika eraginkorrak eta iraunkorrak izan behar dute, udal-etxebizitza plan eguneratu baten ondorio izango direnak; eta datorren hamarkadan hirian eraiki beharreko etxebizitza publiko babestua aztertu eta proiektatuko duen plana izan behar du hark.

• Deben ser políticas de vivienda eficaces y sostenidas en el tiempo, que obedezcan a un nuevo plan de vivienda municipal actualizado, que estudie y proyecte la vivienda pública protegida que se debe construir en la ciudad en la próxima década.

Donostia da etxebizitza eskuratzeko arazorik handiena duen hirietako bat, eta, beraz, gure esku dauden tresna guztiak erabili behar dira egoera horri buelta emateko, Euskadiko eta Estatuko etxebizitzei buruzko legeek bultzatuta.

San Sebastián es una de las ciudades con mayor problema de acceso a la vivienda, por lo que es necesario utilizar todas las herramientas que estén a nuestro alcance, propiciadas por las leyes de vivienda vasca y estatal aprobadas, para revertir esta situación.

Hori dela-eta, Donostiako Sozialistak PSE-EE taldeak EBAZPEN PROPOSAMEN hau sinatzen du, Udalbatzan eztabaida dadin:

Por todo ello, el grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE suscribe la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para ser debatida en el Pleno:

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, indarrean dagoen araudia aplikatuz (Espainiako Gobernuak onartutako Etxebizitzaren Legea, 12/2023), eta nahitaezko izapideak egin ondoren, bizitegi-merkatuko gune tentsionatu izendatzeko horretarako baldintzak betetzen dituzten udalerriko eremuetan, etxebizitzen alokairuen prezioa topatzeko.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die jada planifikatuta dauden gazte eta adinekoentzako zuzkidura-bizitokien eraikuntza bizkortzeko, eta formula hori bera kontuan hartzeko HAPO berrian txertatuko diren garapen berrietan.

3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak etxebizitza publikoen ehunekoa Loiolako Kuarteletan legez ezarritako estandarraren gainetik handitzeko lan egingo du, jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa eta egikaritzea ahalik eta epe laburrenean bermatuz, eta horretarako hiriaren proiektu estrategiko honetan eskumena duten beste erakunde batzuen inplikazioa negoziatuz.

Donostia, 2023ko urriaren 31

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que en aplicación de la normativa vigente, Ley de Vivienda aprobada por el Gobierno de España 12/2023, y tras los trámites preceptivos, proceda a la declaración de zona de mercado residencial tensionado en los ámbitos del municipio que reúnan las condiciones para ello, para topar el precio de los alquileres de las viviendas.

2. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno Municipal y al Gobierno Vasco a acelerar la construcción de los alojamientos dotacionales para jóvenes y mayores que están ya planificados y a contemplar esta misma fórmula en los nuevos desarrollos que se integren en el nuevo PGOU.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián trabajará para aumentar el porcentaje de vivienda pública por encima del estándar legalmente establecido en Cuarteles de Loiola, garantizando la viabilidad económica de la actuación y su ejecución en el menor plazo posible, y negociando para ello la implicación de otras instituciones competentes en este proyecto estratégico de ciudad.

San Sebastián, 31 de octubre de 2023

Marisol Garmendia Beloqui
PSE-EE udal taldearen bozeramailea
Portavoz grupo municipal PSE-EE”

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**5. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

APROBADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.
ABSTENCIONES: 0.

**5. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 5:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.
ABSTENCIONES: 0.

**5. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 5:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 22 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE.
AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.
ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 22 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE.
VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.
ABSTENCIONES: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.

---------------

**6. Ebazpen proposamena, Donostiako Sozialistask PSE-EE taldeak aurkeztua, Anoetako kirol hiria eta Illunbeko instalazioa berritzeari buruzkoa.**

**6. Propuesta de resolución, presentada por el Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, relativa a la reforma de la ciudad deportiva de Anoeta y de la instalación de Illunbe**

“Donostiako Sozialistak PSE-EE taldearen bozeramaile Marisol Garmendia Beloquik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikulua oinarri, EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten du, Anoetako kirol hiriaz eta Illunbeko instalazioaz, POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENAren gaineko Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA:

Anoetako Kirol Hiria, sortu zenetik, Donostiako kirolaren, kulturaren eta gizartearen aktibo handietako bat izan da; izan ere, lehen mailako instalazio-talde bat osatzen zuen, kirol ugari praktikatzeko eta kirol ekitaldiak ez ezik, kultur ekitaldiak ere antolatzeko. Guztion oroimenean dago Donostia, belodromoari esker adibidez, kontzertuak eta ekitaldi nazional eta internazionalak antolatzen zituzten Espainiako bi edo hiru hiren arteko bat zela. Beste horrenbeste esan daiteke, adibidez, Atano III frontoiaz, euskal pilotaren erreferentziako instalazioa, erronda erabakigarriak eta final garrantzitsuenak hartzen zituena, edo Gasca kiroldegiaz, bere garaian puntako ikuskizunak eskaintzen zituena.

Baina, orain, instalazio-multzo horrek garrantzi handiko berrikuntza behar du, presaz egin beharrekoa, Donostia eta Gipuzkoa duten mailan jartzen dituena, beren kirol eta kultur ekosistema aberatsengatik merezi duten mailan, hain zuzen. Erreforma horrek, gaur egungo beharrei behar bezala erantzuteaz gain, etorkizuneko erronka estrategikoei ere erantzun behar die funtsezko esparruetan, hala nola kirolean eta bizitza osasungarrian; batez ere, horri dagokionez, erreferentzia

“Dª. Marisol Garmendia Beloqui, Portavoz del Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, sobre la ciudad deportiva de Anoeta y la instalación de Illunbe.

JUSTIFICACIÓN:

La Ciudad Deportiva de Anoeta ha sido desde su creación uno de los grandes activos deportivos, culturales y sociales de San Sebastián, ya que conformaba un grupo de instalaciones de primer nivel para la práctica de un importante número de deportes y la organización de eventos no solo deportivos, sino también culturales. En la memoria de todos está el tiempo en que San Sebastián, gracias por ejemplo al Velódromo, formaba parte de las dos o tres ciudades de España que albergaban conciertos y otros eventos del máximo nivel nacional e internacional. Otro tanto cabe decir, por ejemplo, del frontón Atano III, instalación de referencia de la pelota vasca que acogía las rondas decisivas y las finales más importantes, o del polideportivo Gasca, que ofrecía también unas prestaciones punteras en su momento.

Pero este conjunto de instalaciones necesita con urgencia una reforma de gran calado que las ponga a la altura de lo que San Sebastián y Gipuzkoa son y merecen por su rico ecosistema deportivo y cultural. Una reforma que no solo atienda de manera adecuada a las necesidades del presente, sino que responda también a los retos estratégicos del futuro en ámbitos clave como son los del deporte y la vida saludable, sobre todo en una ciudad y en un territorio que son reconocidas referencias a este respecto, tanto en práctica deportiva ciudadana y escolar

ezagunak diren hiri eta lurralde batean, bai herritarren eta eskolaren kirol-jardunean, bai kirol federatuan (oinarritik elitera). Kirol-proben egutegiaren aberastasuna eta prestigioa ahaztu gabe.

como en el deporte federado (de la base a la élite), sin olvidar la riqueza y prestigio del calendario de pruebas deportivas.

Donostiak kirolaren eta osasunaren hiri izatearen (eta hiri gisa aitortua izatearen) aldeko apustu irmoa egin behar du, eta, horretarako, ezinbestekoa da Anoetako Kirol Hiria osatzen duten instalazioak asmo handiz berritzea, etorkizunari kirol-jarduera inklusiboa, berdintasunezkoa, osasungarria eta jasangarria bultzatzen eta proiektatzen jarraitzeko.

San Sebastián debe apostar decididamente por ser (y ser reconocida como) una ciudad del deporte y la salud, y para ello es imprescindible una ambiciosa reforma de las instalaciones que componen la Ciudad Deportiva de Anoeta, con el objetivo de seguir dando impulso y proyectar al futuro una práctica deportiva inclusiva, igualitaria, saludable y sostenible.

Baina eragiketa estrategiko horri erakundeen arteko akordiotik baino ezin zaio ekin, ez bakarrik behar dituen baliabide ekonomiko ugariengatik, baizik eta Anoetako Kirol Hiriak Donostiako erabilerak eta beharrak gainditzen dituelako, eta Gipuzkoa eta Euskadi osoa inplikatzen dituen ekipamendu-multzo gisa eratzen delako. Hori dela-eta, erakundeek Donostiako Udalari lagundu behar diote erreforma-proiektua zehazten eta finantzatzen.

Pero esta operación estratégica solo puede acometerse desde el acuerdo interinstitucional, no solo por la importante cantidad de recursos económicos que requiere, sino porque la Ciudad Deportiva de Anoeta transciende los usos y necesidades de San Sebastián y se constituye como un conjunto de equipamientos que implican también a Gipuzkoa y al conjunto de Euskadi, cuyas instituciones deben acompañar al Ayuntamiento de San Sebastián a la hora de perfilar el proyecto de reforma y su financiación.

Ikuspuntu horretatik, gogoan izan behar dugu Alkateak eta Diputatu Nagusiak 2023ko uztailaren 19an egindako baterako adierazpena. Bertan adierazi zutenez, bi erakundeek "modu koordinatuan lan egingo dute Anoetako kirol-instalazioak berritzeko". Adierazpenak honako hau ere esaten du: "legegintzaldi honetarako finkatutako lehentasunetako [bat] Anoetako Kirol Hiriko azpiegiturak berritzea da [...], eta kirol-instalazioak modernizatzeko beharrezkoak diren inbertsioen egutegi bati eta periodifikazio bati ekingo zaie".

Desde este punto de vista, hay que recordar la declaración conjunta realizada el 19 de julio de 2023 por el Alcalde y la Diputada General, en la que se afirma que ambas instituciones “trabajarán de forma coordinada para acometer la renovación de las instalaciones deportivas de Anoeta”. Asimismo, la declaración afirma que “[una] de las prioridades fijadas para la presente legislatura es la renovación de las infraestructuras de la Ciudad Deportiva de Anoeta, […] y que acometerán un calendario y periodificación de las inversiones necesarias para acometer la modernización de las instalaciones deportivas”.

Gauza bera esan daiteke Illunberen

Lo mismo cabe afirmar sobre la instalación de

instalazioari buruz. Hori ere estrategikoa da gure hiriarentzat, eta erreforma sakona behar du. Gaur egun, Donostiak ez du erabilera anitzeko pabiloirik, inguruko hiriburuetan dituztenen antzekorik, eta, horren ondorioz, gure hirian ezin da lehen mailako kirol eta kultura ekitaldirik egin, 5.000 eta 10.000 ikusle artean biltzen dituenik. Horrek murrizten du arlo horietan donostiarrek eta gipuzkoarrek gozatu dezaketen eskaintza, bai eta jarduera horiek ekonomia eta gizartea dinamizatzeko sor ditzaketen aukerak. Hori oztopo argia da hiri gisa garatzeko, baita gure inguruko hiri eta lurraldeekin lehiatzeko eragozpena ere.

Illunbe, igualmente estratégica para nuestra ciudad, e igualmente necesitada de una profunda reforma. San Sebastián no cuenta a día de hoy con un pabellón multiusos como los existentes en capitales cercanas, lo que provoca que nuestra ciudad no pueda acoger eventos deportivos y culturales de primer nivel que ronden aforos entre los 5.000 y 10.000 espectadores. Ello va en detrimento de la oferta que en estos ámbitos pueden disfrutar donostiarras y guipuzcoanos, así como de las posibilidades de dinamización económica y social que estas actividades generarían, lo que constituye un claro obstáculo para nuestro desarrollo como ciudad y una rémora competitiva respecto a las ciudades y territorios de nuestro entorno.

Illunbeko konplexuak eraberritze eta ustiapen proiektu bat behar du, instalazio horiek funtsezko aktibo bihurtuko dituena, hiriarentzat zein lurraldearentzat, Gipuzkoa osoko erabilera anitzeko pabiloia izango da, dudarik gabe, etorkizunean.

El complejo de Illunbe exige un proyecto de reforma y explotación que convierta estas instalaciones en un activo clave tanto para la ciudad como para el Territorio, ya que está llamado a convertirse en el pabellón multiusos de toda Gipuzkoa.

Gure ustez, berrikuntza horren barruan kontuan hartu beharko dira bai kiro-pabilioia bai inguruko hirugarren sektoreko erabilera duten instalazioak. Azken hauetarako, hiriaren behar ekonomiko eta sozialei eta bizitokikoei buruzkoei erantzungo dieten erabilerak proposatuko dira.

Entendemos también que esta reforma debe abarcar tanto el pabellón deportivo como las instalaciones de uso terciario de su entorno, proponiendo para éstas usos que respondan a las necesidades económicas, sociales y habitacionales de la ciudad.

Hori dela-eta, Donostiako Sozialistak PSE-EE taldeak EBAZPEN PROPOSAMEN hau sinatzen du, Udalbatzan eztabaida dadin:

Por todo ello, el grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE suscribe la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para ser debatida en el Pleno:

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die erakunde arteko hitzarmen bat sina dezatela, Anoetako Kirol Hiria eraberritzeko behar diren baliabide

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Gobierno Vasco y al Gobierno de España a firmar un Convenio interinstucional que comprometa, con un calendario plurianual acordado, los recursos económicos necesarios

ekonomikoak konprometituko dituena, adostutako urte anitzeko egutegi batekin, Miniestadioaren birmoldaketa lehenetsiz.

para la reforma de la Ciudad Deportiva de Anoeta, priorizando la remodelación del Miniestadio.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die konprometi ditzatela, adostutako urte anitzeko egutegi batekin, Illunbe Donostiako eta Gipuzkoako erabilera anitzeko pabiloi bihurtzeko baliabide ekonomikoak.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Gobierno Vasco y al Gobierno de España a comprometer, con un calendario plurianual acordado, los recursos económicos para convertir Illunbe en pabellón multiusos de San Sebastián y de Gipuzkoa.

Donostia, 2023ko urriaren 31”.

San Sebastián, 31 de octubre de 2023”.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**6. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**

**ABSTENTZIOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**ABSTENCIONES: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**7. Ebazpen proposamena, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako GI-20 sahiesbidea eraldatzeari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikuluaren babesean, eta Udalbatzak aztertu behar duen Politika Orokorrari buruzko Urteko Adierazpenari begira, aurkezten du honako Ebazpen Proposamen hau, Donostiako GI-20 saihesbidea eraldatzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

GI-20ak 50 urte bete ditu jada. Eraiki zenean, azpiegitura horrek soluzioa eman zien Donostiako mugikortasun-arazo askori, hiriko erdigunea bertatik pasatzen ziren ibilgailu astunen trafikotik askatuz eta lehen kongestinatuta zeuden errepide asko baretuz.

Hala ere, bigarren ingurabidea eraiki zenetik (AP-1), trafikoa erdira jaitsi da bertan (egun 60.000 bat autok zeharkatzen dute GI-20 saihesbidea egunero). Hiria inguratzeko bere funtzio nagusia aldatu egin da eta, hala eta guztiz ere, errepideak neurri eta espazio bera hartzen jarraitzen du.

Argi dago egungo saihesbideak Donostialdeko beste barne-errepide baten funtzioak betetzera pasatu behar duela.

**7. Propuesta de Resolución presentada por el Grupo EH BILDU relativa a la transformación de la variante GI-20 en San Sebastián.**

“Juan Karlos Izagirre Hortelano, portavoz del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta, para su tratamiento en el Pleno sobre la Declaración Anual de Política General, la siguiente propuesta de resolución, relativa a la transformación de la variante GI-20 de San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

La GI-20 ya ha cumplido 50 años. En el momento de su construcción, esta infraestructura dio solución a muchos problemas de movilidad de San Sebastián, liberando el centro de la ciudad del tráfico de vehículos pesados que la atravesaban y calmando muchas vías que estaban congestionadas.

Sin embargo, desde la construcción del segundo cinturón (AP-1), el tráfico se ha reducido a la mitad (actualmente alrededor de 60.000 turismos atraviesan la variante GI-20 diariamente). Su función principal de rodear la ciudad ha cambiado y, a pesar de ello, la carretera sigue ocupando el mismo tamaño y espacio que en un principio.

Es evidente que la variante actual debe pasar a cumplir las funciones de una vía interna de Donostialdea.

Hala, GI-20 saihesbidea eraldaketa berri baten atarian dago gaur egun. Ez bakarrik, desfasatua geratu delako, erabilerari dagokionez; izan ere, larrialdi klimatikoak ere eskatzen digu gure mugikortasun- eta hiri-eredua birpentsatzea eta eraldatzea. Gure inguruko hiririk aurreratuenak beren autobiak, errotondak edo saihesbideak eraldatzeko prozesuetan murgilduta daude garai honetan: Donostia ezin da atzean geratu.

Saihesbide zaharrak gure hiria zeharkatzen du ekialdetik mendebaldera, Herrera auzotik Añorgaraino; gaur egun, Donostia «inguratu» baino, zatitu egiten du lubaki baten antzera. Hortaz, garaia da hainbat auzotan lubaki horiek sortutako zatiketa sozialak gainditzeko eta eremuak berreskuratzeko. Kontua ez da soilik errepide zahar bat eraldatzea eta egungo beharretara egokitzea, baizik eta Donostian sortuko dugun hiri-espazio berri bat bizitzaz betetzea eta hiriarentzat berreskuratzea.

Iazko martxoan, Donostiako Udal Gobernuak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berrikusteko prozesua hasi zuen (udal mailako hirigintza-arau nagusia). Gaur egun, GI-20 saihesbidea hiri lurzoru finkatu moduan ulertzen du Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, non bide komunikazioen sarearen parte den. Lurzorua publikoa da eta 90 hektarea inguruko azalera du, guztira.

Jakin badakigu HAPOaren berrikuspenerako aurrerakinean saihesbidearen eraldaketa aurreikusi dela. Bertan aipaten da GI-20 errepidearen gaineko esku-hartzea egin beharko litzatekeela, hiribide bihurtzeko, eta gure hiriko datozen urteetako proiektu garrantzitsuenetako gisa aurreikusten du.

Por tanto, la variante GI-20 se encuentra actualmente en la antesala de una nueva transformación. No sólo porque se ha quedado desfasada en cuanto a su uso se refiere, sino porque la emergencia climática también nos exige repensar y transformar nuestro modelo de movilidad y de ciudad. Las ciudades más avanzadas de nuestro entorno se encuentran inmersas en procesos de transformación de sus autovías, rondas o variantes, y San Sebastián no puede quedarse atrás.

La antigua variante atraviesa nuestra ciudad de este a oeste, desde el barrio de Herrera hasta Añorga, y, más que "rodearla", la divide como una trinchera. Es hora de superar las divisiones sociales generadas por esta trinchera en diversos barrios y recuperar espacios. No se trata sólo de transformar una carretera antigua y adaptarla a las necesidades actuales, sino de llenar de vida y recuperar para la ciudad un nuevo espacio urbano que crearemos en San Sebastián.

En marzo del pasado año, el Gobierno Municipal inició el proceso de revisión del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU), norma urbanística principal a nivel municipal. Actualmente, la variante GI-20 se concibe por el Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián como suelo urbano consolidado, formando parte de la red de comunicaciones viarias. El suelo es público y tiene una superficie total aproximada de 90 hectáreas.

Se tiene constancia de que en el Avance de la Revisión del PGOU se ha previsto la transformación de la variante. En él se señala la necesidad de intervenir sobre la GI-20 para convertirla en una avenida, previéndose como uno de los proyectos más importantes de nuestra ciudad en los próximos años. El objetivo

Helburua da errepide hori kale-konfigurazioa duen hiribide bihurtzea, gaur egun duen autobia izaera aldatuta. Era honetan, garapenetarako lurra askatu eta gaur egungo hiri-hesia lausotuko litzateke, ertzen arteko iragazkortasuna ahalbidetuz.

es convertir esta carretera en una avenida con configuración de calle, modificando su actual carácter de autovía. De esta forma, ese terreno quedaría libre para posibles desarrollos y la barrera urbana actual quedaría difuminada, permitiendo la permeabilidad entre los márgenes.

HAPOaren berrikuspeneko aurrerakinean irakur dezakegu GI-20 tartea hiribide bihurtzeko aukera bideragarria dela eta hiriko barne-espazioen eraldaketa oso indartsua ahalbidetzen duela.

En el Avance de la Revisión del PGOU podemos leer que la GI-20 es una alternativa viable para convertirse en una avenida que permite una transformación muy potente de los espacios internos de la ciudad.

Finean, aurrerapenaren helburuetako bat mugikortasun-azpiegituren lurzorua optimizatzea da.

En definitiva, uno de los objetivos del avance es optimizar el suelo de las infraestructuras de movilidad.

GI-20 saihesbidearen eraldaketaren ondorioz, lurzoru kopuru handi bat liberatuko litzateke. Helburua litzateke jada artifizializatuak dauden eremu horiek berrerabiltzea eta hiriarentzat berreskuratzea, lur berria okupatu gabe; etxebizitzak egiteko, auzoek behar dituzten ekipamenduak eraikitzeko, auzoetan elementu traktoreak sortzeko, hiriak behar dituen disuasio-parkingak kokatzeko edo eremu berdeak berreskuratzeko. Eta nola ez, saihesbide osoa zeharkatuz Donostian, gure hirian, mugikortasun jasangarria sustatzeko. Baita oinezkoentzako pasabideak sortuz, bidegorriak eraikiz edo hiria ekialde-mendebalde zeharkatuko duen garraio publikoa sustatuz ere.

La transformación de la variante GI-20 supondría liberar una gran cantidad de suelo. El objetivo sería reutilizar estas zonas ya artificializadas y recuperarlas para la ciudad –sin ocupar nuevo suelo– para construir viviendas, para construir los equipamientos que necesitan los barrios, para crear elementos tractores en los barrios, para ubicar los parkings disuasorios que necesita la ciudad o para recuperar las zonas verdes. Y por supuesto, para fomentar la movilidad sostenible en nuestra ciudad, atravesando toda la variante en San Sebastián. También mediante la creación de pasos peatonales, la construcción de carriles bici o el fomento del transporte público que atraviese la ciudad de este a oeste.

Epe luzerako proiektua da eta hainbat legealdi barne hartuko lituzkeena, baina jada gure hiriaren etorkizuna eta norabidea marrazteko aukera gisa baliatu beharko genuke saihesbidearen eraldaketa.

Se trata de un proyecto a largo plazo que abarcaría varias legislaturas, pero deberíamos aprovechar la transformación de la variante como una oportunidad para dibujar el futuro y la dirección de nuestra ciudad.

Hala ere, jakitun gara GI-20 errepidea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena

No obstante, somos conscientes de que la GI-20 es competencia de la Diputación Foral de

dela eta hortaz, beharrezkoa izango da bi erakundeen arteko lankidetza. Hausnarketa honek bateratua izan behar duela iruditzen zaigu; hortaz, garrantzitsua ikusten dugu adostasunez erabakitzea gure hiria zeharkatzen duen saihesbidearen eraldaketa nolakoa izango litzatekeen eta hiriarentzat berreskuratu daitekeen espazioaren inguruan hausnarketa sakon bat egitea.

Gipuzkoa, por lo que será necesaria la colaboración entre ambas instituciones. Consideramos que esta reflexión debe ser conjunta, por lo que nos parece importante que acordemos entre todos cómo va a ser la transformación de la variante que atraviesa nuestra ciudad y que reflexionemos sobre el espacio recuperable para ésta.

Politika orokorrari buruzko udalbatzarrean GI-20 saihesbidearen balizko eraldaketa aztertzeko konpromisoa adieraztea funtsezkoa iruditzen zaigu, esan bezala, aukera ugari zabal ditzake-eta Donostiarentzat.

Nos parece fundamental manifestar en el pleno municipal de política general nuestro compromiso en analizar la posible transformación de la variante GI-20, ya que, como ya se ha comentado, nos pueden abrir muchas oportunidades para San Sebastián.

Horregatik guztiagatik, EH Bildu udal taldeak honako ebazpen proposamen hau egiten du:

Por todo ello, el Grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

EBAZPEN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio GI-20 saihesbidearen eraldaketaren aukerari eta bertan berreskuratuko liratekeen lurzoruei eta lurzoru horien balizko erabilerei buruzko azterketa egin dezala.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a realizar un estudio de la posibilidad de transformación de la variante GI-20 y de los suelos que se recuperarían en en su entorno, así como de los posibles usos de éstos.

2.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jar dadila GI-20 saihesbidearen eraldaketari buruzko hausnarketa partekatzeko.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a ponerse en contacto con la Diputación Foral de Gipuzkoa para compartir una reflexión sobre la transformación de la variante GI-20.

Donostian, 2023ko urriaren 31n

San Sebastián, a 31 de octubre de 2023

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldeko bozeramailea".

Juan Karlos Izagirre Hortelano,
portavoz del grupo municipal EH Bildu".

**PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 22 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 22 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 5 – PSE-EE.**

--------------

**8. Etxebizitzaren arazoari buruz EH BILDU taldeak aurkeztutako ebazpen-proposamena.**

“EH BILDU udal taldearen bozeramaile Juan Karlos Izagirre Hortelanok, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta etxebizitza arazoari buruzko ebazpen proposamen hau aurkeztu du, politika orokorrari buruzko urteko osoko bilkuran eztabaidatu eta onartzeko.

JUSTIFIKAZIOA:

Zalantzarik gabe, hiriaren benetako egoerari buruzko azterketa oinarrizkoenetik ezin da alde batera utzi Donostiak etxebizitzaren arloan pairatzen duen arazo larria.

Jasotako azken datu batzuek agerian uzten dute bizitegi-ostatuaren egoera geroz eta gehiago larritzen ari dela. Hala, etxebizitza librea erosteko batez besteko prezioa, Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren Aurrerapeneko datuen arabera, 5.387,5 euro m² (t) da, hau da, 75 m²-ko etxebizitza batean 405.000 euro; eta, hala, milaka donostiar hortik kanpo geratzen dira. Hala, gaur egun, etxebizitza babestuen eta libreen arteko batez besteko diferentziala % 229 da.

**8. Propuesta de resolución, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la problemática de la vivienda.**

